

**UPV/EHU<sup>n</sup> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2022)**  
**IV. MODALITATEA**

**Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

**UPV/EHU<sup>n</sup> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2022)**

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren Ikerketaren Kudeaketa Zuzendaritzak jasotako eskaerak aztertu ditu, ondoko alderdiak aintzat hartuz:

- a) 3. Oinarrian xedaturiko baldintzen betetzea eskatzaileen aldetik.
- b) 4. Oinarrian xedaturiko baldintzen betetzea, tesi zuzendari izateko proposaturiko pertsonen aldetik.
- c) 6. Oinarrian xedaturiko aurkeztu behar den dokumentazioa

**Eskaera behin-behinean onartu** zaien eskatzaileek ez dute izapiderik egin behar.

Eskaera **zuzentzeko eskatu** edo **behin-behinean baztertu** zaien pertsonak hamar eguneko epea (**2022ko abenduaren 1etik 16ra, biak barne**) izango dute dokumentazioa edo alegazioak aurkezteko. Behin epe hau bukatuta, zuzenketak egin ez dituztenak ukotzat joko dira.

Deialdiaren behin-behineko erabakia argitaratu aurretik -7. oinarrian zehaztutako irizpideen arabera ebaluatzeko behin betiko onartutako eskaeretako puntuazio osoak sartuko dituen-, IV. modalitateetan onartutako merezimenduen behin-behineko zerrenda argitaratzen da. Zerrenda hau eskaerak aurkezteko fasean erregistratutako merezimenduak berrikusetik prestatu da.

Hauek dira zerrenda honetan berrikusitako alderdiak, merezimenduei dagokienez:

- **Graduko espedientearen edo baliokidearen batez besteko nota** (I. eta II. modalitateetarako balio duen betekizuna/merezimendua).
- **Frantses maila nazionalitate espainiarra duten eskatzaileei edo euskara edo gaztelaniaren maila nazionalitate frantsesa duten eskatzaileei.** Beste nazionalitateetako pertsonak gaztelania edo euskara eta frantsesa badakitela egiaztatu beharko dute, merezimendua konputatu ahal izateko. Kontutan hartuko dira Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1, B2, C1 edo C2 mailak adierazten dituzten ziurtagiriak.

IAEk onartutako merezimenduak begiratu ahal izango dituzte eskatzaileek, eta lehenago azaldutakoaren arabera okerrak direla uste badute, aurrean aipatutako 10 eguneko epean zuzenketak egin ahal izango dituzte edo alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte (**2022ko abenduaren 1etik 16ra, biak barne**).

Deialdiko oinarrien arabera, **ez dira inola ere onartuko eskaerak aurkezteko epetik kanpo lortutako merezimenduak edo eskaera aurkezteko epean adierazi ez direnak.**

Alegazioak aurkezten ez badira, ulertuko da hautagaia ados dagoela onartutako merezimenduekin, eta, beraz, ez du bestelako izapiderik egin beharko.

**Zuzenketak eta alegazioak deialdiaren 6.1 oinarrian adierazitako bitartekoak erabilia aurkeztu ahal izango dira.**

**Aipatutako aurkezpen-bide guztiek baliogarritasun bera dute. Beraz, interesdunei bakar bat erabiltzeko eskaera luzatzen zaie.**

Leioa, 2022ko azaroaren 30ean.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

I. ERANSKINA EBALUAZIOARAKO ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO ESKAEREN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA

| NAN          | KODEA       | TXANDA (5.1) | BATAZ BESTEKO NOTA (7.2.1) | DOKTORETZARA SARTZEKO TITULUA (3.1.a) | UPV/EHU-KO ZUZENDARIA DOKTOREGO PROGRAMAN (4.1.c y 4.2.a) | ZUZENDARIA REN LAN LOTURA UPV/EHU-REKIN (4.1.c y 4.2.c) | BURDEO SEKO KOZUZE NDARIA (4.1.c) | HIZKUNTZA MERITUAK (7.2.4) | ONARTUA/BAZTERTUA        | BAZTERTZEKO ARRAZOIAK                  | ZUZENTZEKO                                     |
|--------------|-------------|--------------|----------------------------|---------------------------------------|---|---|-----------------------------------|----------------------------|--------------------------|--|--|
| 13171729C    | PIFPAU22/05 | OROKORRA     | 7,99                       | BAI                                   | BAI   | BAI   | BAI                               | C1 FRANTSESA               | ONARTUA                  |  |  |
| 79131398J    | PIFPAU22/01 | OROKORRA     | 9,64                       | BAI                                   | BAI   | BAI   | BAI                               | C2 FRANTSESA               | ONARTUA                  |  | Eskabidean GIHak lehenestea falta da (6.2.a)   |
| 120364305348 | PIFPAU22/04 | OROKORRA     | 6,65                       | BAI                                   | BAI   | BAI   | BAI                               | EZ                         | ONARTUA                  |  |  |
| 16100971M    | PIFPAU22/03 | OROKORRA     | 7,68                       | BAI                                   | BAI   | BAI   | BAI                               | C1 FRANTSESA               | ONARTUA                  |  |  |
| 152657305    | PIFPAU22/02 | OROKORRA     | 9,1                        | FALTA                                 | BAI   | BAI   | BAI                               | C1 FRANTSESA               | ONARTUA<br>BALDINTZATUTA |  | Doktoretzara sartzeko titulua aurkeztu (6.2.c) |
| G2468635     | PIFPAU22/06 | OROKORRA     | 7,42                       | BAI                                   | BAI   | BAI   | BAI                               | EZ                         | BAZTERTUA                | Ez ditu 300 kreditu ECTS gaitu (3.1.a) |  |